



**Mondragon
Unibertsitatea**


Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



2024-2025 IKASTURTEKO **MEMORIA**



www.mondragon.edu/huhezi





AURKIBIDEA

4 SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

10 TXOSTEN AKADEMIKOA

- Graduak 11
- Unibertsitate masterrak 12
- Etengabeko prestakuntzako titulazioak 13
- Profesionalentzako prestakuntza 13
- Ikerketa eta transferentzia 15
 - Ikerketa 15
 - Transferentzia 15
 - Argitalpenak eta zabalkundea 17
 - Hirugarren zikloa: doktorego programa 18

19 EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

21 KUDEAKETA ORGANOAK

23 FAKULTATEKO LANGILEAK





SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

Memoria honen helburua da 2024-2025 ikasturtean egindakoak, ikasitakoak eta aurrean ditugun erronkak jasotzea eta partekatzea. Dokumentu honek gure hezkuntza- eta kooperatiba-komunitatearen inplikazioa eta konpromisoa islatzen ditu; izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea osatzen dugunok egunero dihardugu gizartean eragiten, pasioz, ikuspegi anitzetatik eta ahots aniztunetik.

Horregatik, lehenik eta behin, zorionak eta eskerrik asko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko kide guztioi: zuen konpromiso eta ekarpenari esker eraikitzen dugu gure proiektua egunez egun.

2024-2025 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak gradu eta master eskaintza zabal eta berritzailea sendotu du. Aurrez aurreko graduatan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Humanitate Digital Globalak programetan guztira 1.198 ikasle aritu dira aurrez aurreko graduatan. Gainera, estreinakoz, Berrikuntza Digitaleko ikasleek 4. maila amaitu dute. Modalitate erdi-presentzialean, Haur eta Lehen Hezkuntzako graduatan, 284 ikasle egin dute beren ibilbidea, malgutasuna eta ikaskuntza pertsonalizatua uztartuz. Beraz, graduatan 1.482 ikasle izan ditugu 2024-2025 ikasturtean. Ikasturte honetan, Kultur eta Sormen Industrien graduaren diseinua ere egin da.

Unibertsitate masterretan, 241 ikasle parte hartu dute Fakultateak eskaintzen dituen lau masterretan:

- DBHn eta Batxilergoan, LHn eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle gisa aritzeko unibertsitate masterra (15. edizioa, duala eta erdi-presentziala).
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra – LIT unibertsitate masterra (4. edizioa, TeamLabs-ekin elkarlanean).
- Kooperatibismoa eta Kudeaketa Sozioenpresariala unibertsitate masterra (4. edizioa).
- Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketa unibertsitate masterra (1. edizioa).

Eskaintza akademikoan eta ikasleen mugikortasunari dagokionez, 156 ikasle joan dira atzerrira eta 56 Espainiako estatuko beste lurralde batzuetara. Era berean, 26 ikasle atzerritarrek hartu dute parte gure programetan, gure nazioarteko komunitatea aberastuz. 1.412 curriculum-praktika egin dituzte ikasleek ikasturtean, ikastetxe, enpresa eta erakundeetan. Horietatik 192 alternantzia-ibilbidean egin dira, eta 14 ibilbide DUALean. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 44 praktikaldi ere egin dituzte ikasleek ikasturte honetan.



Etengabeko Prestakuntzan, 145 ikasle izan ditugu eta titulazio berriak ere jarri ditugu abian, hala nola Mondragon esperientziaren gakoak Unibertsitateko mikrokredentziala, Kooperatiban murgiltzen Unibertsitateko mikrokredentziala edo Unibertsitate praktikak eraldatzeko eta errazteko estrategiak Unibertsitateko mikrokredentziala, besteak beste. Urtero legez, aditu-diplomak eskaini ditugu arlo guztietan eta profesionalekin lanean aritu gara. Azken horiei dagokienez, 2.375 pertsonak hartu dute parte kooperatibismoarekin lotutako saioetan, 2.426 pertsonak hezkuntza-komunitateen eremuan garatutakoetan eta 30 pertsonak komunikazioaren arloan eskainitako saioetan.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak diziplinarteko ikerketa eta transferentzia kolaboratiboaren aldeko apustua sendotu du. 2024-2025 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 24 ikerketa-proiektu eta 70 transferentzia-ekimen garatu ditu, hezkuntzaren, komunikazioaren, kooperatibismoaren eta gizarte-berrikuntzaren esparruetan. Jarduera horien bidez, Fakultateak sendotu egin du bere ikerketa- eta eragin-ahalmena, bai Euskadin, bai nazioartean.

Ikasturtean zehar, Fakultateak hainbat deialdi konpetitibotatik eratorritako proiektu estrategikoetan parte hartu du; besteak beste, EU4DUAL europar aliantzan, hezkuntza dualaren inguruko ikerketa eta berrikuntzan; eta baita Albania, Europa mailako lanbide-prestakuntza, eta eleaniztasunaren garapena helburu duten nazioarteko proiektuetan ere. Halaber, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioarekin garatutako ekimenek (adibidez, *Tejiendo Alianzas*, *Comunicoop*, edo *ATEA*) ekosistema kooperatiboak indartzen lagundu dute.

81 proiektu garatu dira hezkuntza, kooperatibismo eta gizarte-berrikuntzaren arloetan. Hezkuntza-berrikuntzan, Fakultateak 2.000 profesionalen baino gehiagoren garapenean lagundu du, etapa guztietako ikastetxeekin elkarlanean (Haur Hezkuntzatik unibertsitatera). Proiektu horiek diziplinarteko ikuspegia izan dute, digitalizazioa, eleaniztasuna, kultur transmisioa eta gizarte-kohesioa uztartuz. Gainera, Fakultateak parte hartu du nazioarteko berrikuntza-prozesuetan ere, Boliviako Unifranz unibertsitatearekin eta Argentinako GAIA eskolarekin, besteak beste.

Kooperatibismoaren eta gizarte-berrikuntzaren alorrean, Fakultateak udalekin, enpresekin, GFArekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egin du, ekintzailatza sozial kooperatiboa, hiritartasuna eta gobernantza-eredu berriak



sustatzeko. Lan horrek Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea erreferente bihurtu du ekonomia sozial eta kooperatiboaren ikerketan eta dibulgazioan.

Argitalpenei dagokionez, 2024-2025 ikasturtean, Fakultateak 86 argitalpen kaleratu ditu: 34 artikulua zientifiko, 13 liburu eta 5 liburu-kapitulu, horietatik 23 euskaraz. Horrez gain, 15 ikerketa-ekitaldi eta 10 prestakuntza-mintegi antolatu dira, ezagutza partekatzeko eta komunitate akademikoa indartzeko.

2024-2025 ikasturtean, 28 doktoregai matrikulatu dira *Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan* doktorego programan (UVic-UCCrekin elkarlanean). Gainera, Vic-en egin den 12. Doktorego-jardunaldian, ikerketaren ikuspegi etikoa izan da ardatz nagusi, eta bost tesi defendatu dira, lau nazioarteko aipamenarekin.

HUHEZI Kooperatiba Elkartearen helburua argia da: komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesional eta pertsonala bermatzea, lantzen ditugun espazio guztietan. Horretarako, gaikuntza-plana sendotu dugu, gaitasun-gakoetan, hizkuntzetan, ikerketan eta plan pertsonalizatueta sakonduz.

Bizitza unibertsitarioari dagokionez, ekimen ugari bultzatu ditugu: graduarekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu; esaterako, Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren 18. edizioa, Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa edo euskararen inguruko motibazioa lantzeko proiektuak.

2024-2025 ikasturtea Plan Estrategikoaren lehenengo ikasturtea izan dugu, eta etorkizunari begirako jauzia emateko hainbat urrats egin dira. Bizitza osoko ikaskuntza eta ikerketarako fakultate kooperatiboa izateko, eta gizartean eragin esanguratsua izango duen komunitate konprometitu eta berritzailea izaten jarraitzeko bidean hainbat ikaskuntza jaso ditugu. Askotariko ikasleak, eskaintzak eta lanketak egiteko oinarriak finkatzen hasiak gara, eta esperientzia esanguratsuak bizi izan ditugu ikasturtean. 2024-2025 ikasturtea erronkaz eta ikaskuntzaz betetako ikasturtea izan da. Egin dugun bideak erakutsi digu aurrera egitea ez dela soilik emaitzetan neurtzen, baizik eta elkarrekin ikasteko, sortzeko eta eragiteko gaitasunean.


Eskerrik asko, berriz ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko pertsona guztiei. Zuen konpromisoari esker, Fakultatea ez da soilik lan-espazioa: gizartean eraldaketa sustatzen duen komunitate kooperatiboa da.



AIPAMEN HISTORIKOA

IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

DATA ESANGURATSUAK



2011

- Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua

2012

- Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa



2013

- Aretxabaletako campusaren inaugurazioa
- Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa

2014

- AUDIT Kalitate-sistema
- Hezkuntza gradu osoak online
- Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate masterra - MCOOP

2015

- Berrikuntza metodologikoa Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan

2016

- Fakultatearen 40. urteurrena



2017

- Berrikuntza metodologikoa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetan

2020

- Dorleta eraikinaren inaugurazioa
- Humanitate Digital Globalak gradua - HDG
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra - MCOOP
- Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma - CLO
- Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma - ROL
- Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)
- Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)

2019

- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra - Lit
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra modalitate erdi-presentzialean
- Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua
- Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio diploma

2018

- KoLaborategiaren sorrera
- Unibasq-en akreditazio instituzionala

2021

- Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ) abian
- Pertsonen Garapenerako Eredu (PGE) berria
- AS Fabrik campusaren inaugurazioa

2022

- Gastronomiako Irakasle Prestakuntzan unibertsitate masterra
- Eskola eraldatzeko pedagogian eta kudeaketan espezializazio diploma
- Ikus-entzunezko Ekintzailertzan eta Berrikuntzan aditu diploma
- Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Conexão Mundo. Brasil)

2023

- Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra
- Aniztasunari Erantzuteko Arreta Zerbitzua abian
- Mondragon Esperientzia Kooperatiboaren Gakoak nazioarteko ikastaroa
- Unibasq-en akreditazio instituzionala berri

2024

- Aretxabaletako campuseko birmoldaketa: IdeiEnea laborategiaren sorrera
- Euskal Kulturaren Eragiletzan formazio iraunkorreko masterra
- Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketan unibertsitate masterra





TXOSTEN AKADEMIKOA



2024-2025 ikasturtean, jarduera hauek garatu ditugu graduatan:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatan, alternantzia-ereduarekin jarraitu dugu laugarren mailan. AS Fabriken, Lehen Hezkuntzako Berrikuntza Digitala aipameneko lehen ikasle taldea graduatu da.
- Humanitate Digital Globalak graduan lehen promozioa graduatu ondoren, graduaren inguruko hausnarketa-prozesua bideratu da diseinu berriak proposatuz. 2. mailako ikasleek parte hartu dute *Students for Climate Justice* BIP programan, Hochschule Düsseldorf, Université Catholique de Lille and AP Hogeschool Antwerpen unibertsitateekin batera.
- Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduan bi ibilbide garatzen jarraitu dugu: *Ikus-entzunezko Sormena* eta *Komunikazio Digitala*, azken hori eredu dualean. Lanbide Heziketako goi-mailako zikloetatik unibertsitatera igarotzeko bidea erraztu egin da, eta ziklo jakin batzuetatik datozen ikasleei 60 ECTS kreditu arte aitortuko zaizkie.

Datuetera etorrira, 2024-2025 ikasturtean, eta askotariko modalitateak kontuan hartuta, graduko 1.482 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; haietatik 464 lehen mailako ikasle berriak izan dira. Honela daude banatuta ikasleak graduka:

Graduak	1.482 ikasle 949 emakumezko 533 gizonezko
Haur Hezkuntza	338
Lehen Hezkuntza	890
Ikus-entzunezko Komunikazioa	179
Humanitate Digital Globalak - HDG	75

Graduko curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.412 egonaldi egin dituzte ikasleek 2024-2025 ikasturtean, ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. Haietatik 192 alternantzia-ibilbidean egin dira, eta 14 ibilbide DUALean. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 44 praktikaldi ere egin dituzte ikasleek ikasturte honetan.

Mugikortasun-programari dagokionez, 2024-2025 ikasturtean, 212 ikaslek parte hartu dute mugikortasun-programan: 156 ikasle joan dira atzerrira eta 56 Espainiako estatura. *Incoming* ikasleei dagokienez, atzerriko 26 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Ikasle berrientzako orientazio-ekintzei dagokienez, ikasturte honetan, ate irekien ekitaldiak egin ditugu lau graduatan, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bilboko campusetan. Guztira, 1.126 parte-hartzaile izan ditugu, 488 ikasle eta 638 laguntzaile. Antolatutako onarpen-probetan, bestalde, 518 ikaslek parte hartu dute.

Graduarekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu; esaterako, Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia, Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa edo ikasle egresatuen orla banatzeko ekitaldia. Ekitaldi hori Euskalduna jauregian ospatu genuen, bigarren aldiz.

UNIBERTSITATE MASTERRAK

2024-2025 ikasturtean, 241 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaini ditugun lau unibertsitate masterretan. Generoari erreparatuta, ikasle horietatik 130 emakumezkoak izan dira, eta beste 111 gizonezkoak.

2024-2025 ikasturtean, lau unibertsitate master hauek eskaini ditugu; haietatik bat berria da, gainera:

- Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketa unibertsitate masterra (1. edizioa).
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (16. edizioa).
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (5. edizioa).
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra.

Unibertsitate masterrak	241 ikasle 130 emakumezko 111 gizonezko
Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketa unibertsitate masterra	11 ikasle
DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra	203 ikasle
Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra	17 ikasle
Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra	10 ikasle



ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO TITULAZIOAK

Profesionalei zuzendutako lau berezko titulazio eskaini ditu Fakultateak ikasturte honetan:

- Kooperatibagintzan aditu diploma (17. edizioa).
- Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra (2. edizioa).
- Hezkuntza-berrikuntza testuinguru kooperatiboetan aditu diploma (4. edizioa).
- Hezkuntza pedagogikoa ingurumen, jasangarritasun eta energien Lanbide Heziketako irakasleentzat aditu diploma (3. edizioa).

Horiez gain, aurtengo berrikuntza nagusia izan da profesionalei zuzendutako mikrokredentzialen sorrera. Mikrokredentzialak berezko tituluak baino ikastaro laburragoak dira, eta eremu eta konpetentzia espezifikoetan trebatzeko formatu malguak eskaintzen dituzte. Horrela, lan-munduari behar aldakorrei arinago erantzuteko aukera eskaintzen dute, bai eta, ikastaro luzeagoak modularizatuz, ikasleei haien ibilbideak pertsonalizatzeko ere. Eta lerrokatuta daude, gainera, Europa sustatzen ari den gidabide eta tresnekin. Hauek dira ikastaroen datuak:

Etengabeko Prestakuntzako titulazioak: masterrak, aditu diplomak, espezializazio diplomak eta mikrokredentzialak	145 ikasle 62 emakumezko 83 gizonezko
Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra	10 ikasle
Kooperatibagintzan aditu diploma	18 ikasle
Hezkuntza-berrikuntza testuinguru kooperatiboetan aditu diploma	20 ikasle
Hezkuntza pedagogikoa ingurumen, jasangarritasun eta energien Lanbide Heziketako irakasleentzat aditu diploma	15 ikasle
Mondragon esperientziaren gakoak, Unibertsitateko mikrokredentziala	16 ikasle
Mondragon esperientziaren gakoak eta behaketa, Unibertsitateko mikrokredentziala	5 ikasle
Unibertsitate praktikak eraldatzeko eta errazteko estrategiak, Unibertsitateko mikrokredentziala	10 ikasle
Unibertsitate-erakundeak eraldatzeko eta errazteko estrategiak, Unibertsitateko mikrokredentziala	10 ikasle
Kooperatiban murgiltzen, Unibertsitateko mikrokredentziala	41 ikasle

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

2024-2025 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak formakuntza eskaini du kooperatibismoaren, hezkuntza berrikuntzaren eta komunikazioaren jakintza-arloetan.

Batetik, hiru ikastaro labor antolatu ditugu, eta horietan 76 ikasle aritu dira. Hezkuntzaren eremuan, ikastaro hauek antolatu ditugu: *Lan-taldearen erraztailetza* eta *Ebaluazioa eta feedbacka*. Kooperatibismoaren eremuan, ikastaro bat antolatu dugu: *Mondragon esperientziaren*. Eta komunikazioaren eremuan, *Kolorearen kudeaketari*



buruzko ikastaro aurreratuan parte hartu dugu, ESCAC Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya-rekin batera.

Bestetik, zenbait prozesu eta prestakuntza antolatu ditugu profesionalak beren lan-eginkizunekin konektatuta prestatzeko, kasu gehienetan, lantokian bertan.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak formakuntza kooperatiboa eman dio kooperatibetako zenbait eragileri: bazkide berriei, organo sozialetako kide berriei eta kooperatiba batzuetako bazkide/langile kolektibo osoei. 2024-2025 ikasturtean, honako kooperatiba hauetan eman du formakuntza: Orkli, GSR, Danobat, Dikar, Fagor taldea, Laboral Kutxa, Lea Artibai, Cikautxo, Ausolan, Enpresagintza eta Kide. Guztira, 132 formakuntza-saio izan dira, eta 2.375 pertsonak hartu dute parte. Aldi berean, formazio-eskaintzaren berrikuntza egin da Kooperatibara Murgiltzen mikrokredentzial ikastaro hibridoa eskainiz, Fagor Taldean eta Orkli kooperatiban.

Hezkuntzari dagokionez, zenbait ikastaro eta aholkularitza eskaini dira ikastetxe eta erakundeek eskatuta. Prozesu horietan, gai ugari garatu ditugu. Hizkuntzen eremuan, gai hauek landu ditugu, besteak beste: ikastetxeko Hizkuntza Proiektuen diseinua eta inplementazioa, hezkuntza eleaniztunaren testuinguruan hizkuntza-kompetentzia garatzeko markoak (trataera bateratua, arloko alfabetatzea, gelako elkarrekintza...), hizkuntza idatziaren irakaskuntza eta testugintza, ulermena edo euskara tekniko.

Kulturartekotasunaren eta aldaketa sozialen eremuan, honako gai hauek landu dira: euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko estrategiak, herrietan hezkuntzaren estrategia bateratua adosteko lanketak eta prozesuak, genero-estereotipoak eta kulturarteko hezkuntza. Zientzia, teknologia eta digitalizazioaren eremuan, berriz, honako hauek: digitalizazioa eta adimen artifiziala hezkuntzan, begirada teknopedagogikoa, pantailen eta mobilen erabilera, eta bidelaguntza digitala. Azkenik, hezkuntza berrikuntzarekin eta alderdi metodologikoekin lotuta, honako gai hauek landu ditugu, besteak beste: ebaluazioa ikaste-irakaste prozesuetan eragiteko, hezkuntza-berrikuntza unibertsitatean, ikastetxeko proiektu pedagogikoaren berrikuntza, koirakaskuntza-estrategiak gelan, alderdi metodologikoen eraldaketa eta jolasa Haur Hezkuntzan. Guztira, 2.426 pertsonak hartu dute parte hezkuntza-komunitateen eremuan egindako prestakuntza- eta aholkularitza-proiektuetan.

Komunikazioari dagokionez, aholkularitza eskaini da mugikorrek modu aurreratuan grabatzeko estrategiez edo platoaren erabileraz. 30 pertsonak hartu dute parte proiektu horietan.



IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

2024-2025 ikasturtean, 24 ikerketa-proiektu eta 70 transferentzia-ekimen garatu ditugu. Datozen lerrootan bilduko ditugu ekimen aipagarrienak.

IKERKETA

2024-2025 ikasturteko ikerketa-jarduna hezkuntzan, komunikazioan, kooperatibismoan eta gizarte-berrikuntzaren eremuetan kokatu da. Hona hemen 2024-2025 ikasturtean bereziki deialdi konpetitiboetatik eratorritako ikerketa aipagarrienak:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
EU4DUAL - European University Alliance for Cooperative Education	Europar Batasuna	Hezkuntza duala eta ikasleen mugikortasuna uztartu nahi dituen proiektua.
Strengthening capacities for the implementation of dual education in Albanian higher education	Europar Batasuna	Hezkuntza duala Albanian hedatzeko asmoa duen proiektua
Harmonising Apprenticeship Mobility and Standards Across Europe	Europar Batasuna	Hezkuntza duala eta ikasleen mugikortasuna uztartu nahi dituen proiektua
Inclusive Student Civic Engagement as a Pathway for Enhanced Skills & Competences in Tertiary Vocational Education and Training	Europar Batasuna	Ikuspegi inklusibotik ikasleen inplikazio eta trebetasun zibikoak sustatzeko proiektua.
Fomento del plurilingüismo en la enseñanza y el aprendizaje de las lenguas del territorio para reducir la barrera lingüística en el espacio transfronterizo	Comunidad de Trabajo de los Pirineos - Unión Europea	Mugaz gaindiko proiektu honetan, eleaniztasuna sustatzeko moduak ikertzen dira.
Tejiendo alianzas para el fomento y consolidación de ecosistemas cooperativos territoriales transformadores en Euskadi, Navarra y Andalucía	Ministerio de Trabajo y Economía Social	Ekosistema kooperatiboak sustatzeko moduak bultzatzen eta ikertzen dituen proiektua.
Comunicoop	Ministerio de Trabajo y Economía Social	Kooperatibetan komunikazioa sustatzea helburu duen proiektua.
Compesost	Ministerio de Trabajo y Economía Social	Lehiakortasun iraunkorreranzko eraldaketa kooperatiboa.
Atracción de Talento joven a un Ecosistema de economía social Avanzado - ATEA	Confederación Empresarial Española de Economía Social (CEPES)	Talentu gaztea erakartzeko moduak ikertu dituen proiektua.

TRANSFERENTZIA

Transferentzia- eta aholkularitza-proiektuei dagokienez, 81 proiektu gauzatu ditugu Fakultatean, hezkuntzaren, kooperatibismoaren eta gizarte-berrikuntzaren arloetan.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea erreferentziazko zentroa da hezkuntza berrikuntzaren alorrean. Horren adibide dira hezkuntza-etapa guztietan garatu diren 70 transferentzia-proiektuak. Hezkuntza-arloko 2.000 profesionalak baino gehiagok hartu dute parte beren garapen profesionalerako ekimen horietan. Diziplinartekotasuna ardatz hartuta, digitalizazioa, euskara eta eleaniztasuna, kultur transmisioa, gizarte-erronkak eta kohesio soziala, edo hezkuntza-metodologia berritzaileekin lotutako proiektuak garatu dira. Horien bitartez, Fakultateak ekarpen esanguratsua egin die Euskadiko hezkuntzak dituen erronka estrategikoei, Administrazio eta





hezkuntza-eragile guztiekin elkarlanean. Are gehiago, azpimarratzekoa da bertan ez ezik, nazioartean ere garatu direla proiektu batzuk, atzerriko hainbat erakundetako hezkuntza-berrikuntzaren inguruko prozesu globaletan ere esku hartu baitute Fakultateko irakasle-ikertzaileek, hala nola Boliviako Unifranz unibertsitateko berrikuntzan edo Argentinako GAIA eskolako irakasleen garapenean.

Hezkuntzan ez ezik, kooperatibismoaren eta gizarte-berrikuntzaren alorrean ere lanean dihardu Fakultateak, besteak beste, kooperatibismoa, ekintzailtza sozial kooperatiboa, hiritartasuna edo gobernantza-eredu berriak sustatzeko egitasmoak garatuz. Aipatzekoa da proiektu asko garatu direla bertako enpresekin, udalekin, GFArekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Ministerioarekin elkarlanean. Gainera, azpimarratzekoak dira kooperatibagintzara hurbiltzeko zein kooperatibagintzan sakontzeko aukera eskaini duten proiektuak, nazioarteko ikerlarien eta profesionalen interesa piztu baitute. Oro har, gizarte-berrikuntzan, ekonomia sozialean eta zehazki kooperatibismoan egindako lanak erreferentzialtasuna, deialdi lehiakorretan lortutako ikerketa-proiektuak eta horien haritik etorritako argitalpenak ekarri ditu.

Hona hemen transferentzia-ekimen aipagarri batzuk:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Elkarhitz proiektua: gelako praktika eraldatu, ikasleen euskarazko komunikazio-kompetentzia hobetzeko Bigarren Hezkuntzan	Hezkuntza Saila	Arlo guztietako irakasleek gelako elkarrekintza esanguratsuaren bidez ikasleen hizkuntza-kompetentzia lantzeko markoa eta estrategiak. Gelako praktiken analisia ikerketa-ekintzaren testuinguruan.
Egibideko berrikuntza pedagogikoaren prozesuan bidelaguntza 2024-2025	Egibide - Fundación Diocesanas Jesús Obrero Fund.	Egibideko berrikuntza pedagogikoa bertako profesionalekin batera sustatzeko proiektua.
Balio soziala proiektua	EHU	Balio sozialaren kalkulua egitea.
Ekonomia sozialeko munduko unibertsitate-agenteen diagnostikoa	MIK	Ekonomia sozialaren baitan, unibertsitate-agenteen inguruko diagnostiko-lana.
LOMLOE, programazioa eta koirakaskuntzaren kontzeptualizazioa, rolak, diseinua eta ebaluazioa	Trueba ikastetxea	Curriculum berriarekin koherentzia, ebaluazio eta ikas-egoeretara koirakaskuntza aintzat hartuz egokitzeko proiektua.
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua: arloetako alfabetizazioa	Uribekosta BHI	Hizkuntza proiektuan arloetako alfabetizazioa lantzeko prozesua.
Koirakaskuntza: oinarriak eta eginbideak	EHI	Koirakaskuntzaren oinarrien eta eginbideen lanketa eta azterketa.
Irakasle gogoetatsuaren profila	Larrun	Irakasle gogoetatsuaren profila garatzeko prozesua.
Komunitatearen konpromisoa hezkuntzan: Aretxabaletako eta Eskoriatzako hezkuntza-sareen elkarlana sendotzeko prozesua	Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalak	Herriko hezkuntza-komunitatearen lanketa integrala.



ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2024-2025 ikasturtean, guztira 86 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 34 artikulua, 13 liburu eta 5 liburu-kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altu eta ertaineko aldizkari edo argitaletxeetan. 23 argitalpen euskaraz izan dira.

Argitalpen zientifikoak	86
Artikulu zientifikoak	34
JCR, SJR, CiteScore, CIRC A edo B, CARHUS+ A edo B	28
CIRC C edo D, CARHUS+, INRECS, LATINDEX, MIAR...	6
Bestelakoak	1
Liburuak	13
WoS/Scopus/Dialnet	-
Liburu kapituluak	5
WoS/Scopus/Dialnet	1
Liburu-erreseinak	2
Kongresu eta jardunaldietako komunikazioak	23
Kongresu aktak (argitaratuta)	14
Argitaratu gabe	9
Dibulgaziorako argitalpenak	4
Bestelakoak	-
Tesiak	5
Tesi-laburpenak	-
Euskarazko argitalpenak	23
eBiltegian	55
Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta	56

Argitalpenez gain, ikasturte honetan, ikerketa-proiektuekin lotutako 15 ekitaldi antolatu ditugu. Gainera, ikerketari buruzko 10 prestakuntza-mintegi egin ditugu ikasturtean zehar.



HIRUGARREN ZIKLOA: DOKTOREGO PROGRAMA

2024-2025 ikasturtean, 28 lagun matrikulatu dira Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera eskaintzen dugun Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programan.

Horrez gainera, ikasturte honetan, Vic-en egin dugu doktorego programaren 12. jardunaldia. Bertan, hizpide izan dira doktoregoan eta ikerketetan ikuspegi etikoa aintzat hartzeko moduak.

Azkenik, aipatzekoa da bost doktoregaik tesiaren defentsa egin dutela 2024-2025 ikasturtean, horietako lau nazioarteko aipamenarekin.





EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA



Arlo ekonomiko-finantzariora etorrira, 2024-2025 ikasturteko sarrerak 14.819.106 eurokoak izan dira, eta gastuak, berriz, 14.627.998 eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 191.108 eurokoa izan da.

GASTUAK:

14.627.998 €

SARRERAK:

14.819.106 €

EMAITZA:

191.108 €

Ikasturte honetan, 2.414.811 euroko inbertsioak egin ditugu, nagusiki Aretxabaletako campusaren hedapenera bideratu dira. Eskoriatzako Nagusia eraikineko klaustroaren segurtasun-egokitzapenera iazko ikasturtean bideratutako finantzaketa neurri txikiagoan ikasturte honetan bukatu da. Finantzaketaren portzentaje handi bat Fepi funtsetatik bideratu da eta gainontzekoa HUHEZlko funts propioetatik. Halaber, Gizabideak gauzatu du Dorletarako adostutako portzentajea.

Balantzeari dagokionez, egoeraren balantzearen aktibo eta pasiboa 18.013.472 eurokoa zen 2025eko abuztuaren 31n.





KUDEAKETA ORGANOAK



ANTOLAKETA EGITURA

DEKANOA: Nagore Ipiña

ZUZENDARITZA KONTSEILUA

- Nagore Ipiña: Fakultateko dekanoa
- Aitziber Arregi: Zuzendari akademikoa
- Iñaki Larrea: Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria
- Ainara Artetxe: Hezkuntza Berrikuntzaren arloko zuzendaria
- Xabi Igoa: Komunikazioaren arloko zuzendaria
- Ainara Udaondo: LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko zuzendaria
- Karmele Perez: Profesionalen Prestakuntzako zuzendaria
- Ainhoa Leturiaga: Administrazio eta Finantzaketako zuzendaria
- Leire Uriarte: Bilbao AS Fabrikeko ordezkaria

KONTSEILU ERREKTOREA

- Amaia Agirre: Lehendakaria
- Oxel Azkarate: Lehendakariordea
- Amaia Torrealdai: Idazkaria

BOKALAK:

- Aitor Zuberogoitia
- Arianne Kareaga
- Mireia Muruamendiaraz
- Javier Marcos
- Edorta Barandiaran
- Andere Larrañaga
- Markel Herranz
- Amets Arexolaleiba
- Auritz Loidi





FAKULTATEKO LANGILEAK





Hau guztia ez litzateke posible izango ikasturtean zehar proiektu honetan inplikatu eta parte hartu duten lagun hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

- Agiriano Beitia Jaione
- Agirre Garcia Nerea
- Alberdi Ruiz De Alegria Amaia
- Aldabaldetrekua Gonzalez De Txabarri Rita
- Alonso Amezua Idurre
- Alonso Fradua Bitor
- Altuna Morcillo Saioa
- Alvarez Huerta Paula
- Alvarez Santillan Isabel
- Amesti Urien Nerea
- Anton Ustaritz Eneko
- Apraiz Ansola Marikarmen
- Apraiz Laruzea Itxaso
- Aramendia Etxeberria Olatz
- Arana Arrieta Goio
- Arebitorre Landeta Eunete
- Arias Hermoso Roberto
- Aristi Narbaiza Jon
- Arratibel Insausti Nekane
- Arregi Landa Itziar
- Arregi Iribecampos Aitziber
- Arregi Murgiondo Xabier
- Arrese Errasti Gotzone
- Arriaran Olalde Iñigo
- Arroyo Sagasta Amaia
- Arteta Elgezua Joseba
- Artetxe Aranaz Ainara
- Astigarraga Agirre Idoia
- Astigarraga Iriondo Amaia
- Asurmendi Garcia Nerea
- Azkarraga-Urizar Ugarte Itziar
- Azkarate Iturbe Oxel
- Azkue Lete Iker
- Azpeitia Eizagirre Agurtzane
- Barandiaran Arteaga Alexander
- Barquin Lopez Amelia
- Bartolome Urkiola Julen
- Baztan Miguel Asier
- Beitia Sasiain Loredi
- Belategi Unzueta Onintza
- Bengoetxea Donaire Jon Aritz
- Biain Bidarte Amaia
- Biain Igartua Maite
- Bidegain Aire Eneko
- Bilbao Eraña Ainara
- Bonilla Bermejo Mari Carmen
- Caballero Ramirez Izaskun
- Cabello Perez Susana
- Cadavid Etxebarria Maialen
- Cancio Orueta Leire
- Carmona Igartua Unai
- Carpintero Martin Ana
- De La Fuente Cosgaya Miguel
- De La Iglesia Gamboa Egoitz
- Egaña Osa Txema
- Egizabal Ollokiegi Diego
- Egilegor Uranga Izaskun
- Eizagirre Eizagirre Andoni
- Eizagirre Iribar Garazi
- Elorza Gogenola Eztizen
- Elustondo Astigarraga Izar
- Escandon Lucea Eunete
- Eskibel Montero Nagore
- Espeso Barquero Ruben
- Etxeberria Loiarte Oier
- Etxaburu Osa Mikel
- Etxebeste Liras Onintza
- Ezkutari Sola Txomin
- Fallon Mary Sinead
- Fernandez Elorz Miren-Eukene
- Flores Puga Beñat
- Galdos Alberdi Zorione
- Galindez Nafarrate Edurne
- Gallardo Bolaños Entxo
- Galparsoro Garcia Rosa
- Garcia Fernandez Letizia
- Garitano Laka Paulo
- Garmendia Gomez Malen
- Garro Larrañaga Eneritz
- Gastañazatorre Gorrotxategi Idurre
- Goikoetxea Agirre Nekane
- Gomez Agirrebeitia Aintzane
- Gonzalez Arenaza Ainhoa
- Gorrotxategi Alberdi Julene
- Gostin Elorza Andres
- Guridi Bikuña Amaia
- Herran Muruaga Ibon
- Higuero Fuentes Andrea






Langileak 170

Emakumezkoak: 112 ●

Gizonezkoak: 52 ○

* Ez-bitarrak: datu hori ez zen jaso.



- Ibarrondo Del Canto Asier
- Igoa Eriz Xabi
- Imaz Agirre Ainara
- Imaz Alias Oier
- Iñurrategi Irizar Nagore
- Iñurrategi Leon Nekane
- Ipiña Larrañaga Nagore
- Irizar Mezo Asier
- Iturralde Alberdi Xabier
- Iturriarte Basterretxea Ane
- Jimenez Arrieta Olaia
- Jimenez De Aberasturi Zapatero Sara
- Juaristi Olaetxea Itxaro
- Kanpandegi Berrotaran Aritz
- Kapelastegi Osoro Ibane
- Kareaga Irazabalbeitia Arianne
- Kortabarria Urain Iñigo
- Laparra Guillen Iker
- Larrañaga Elorza Ainhoa
- Larrea Arana Mireia
- Larrea Hermida Iñaki
- Laskurain Bidaburu Leire
- Lauzurika Arrondo Asier
- Lersundi Perez Amaia
- Leturiaga Letona Ainhoa
- Lezeta Ruiz De Alegria Ion
- Longarte Arriola Joseba
- Lopez Salas Nerea
- Loyola Idiakez Aitzol
- Markuleta Ugarte Ane
- Martin Requejo Katia
- Martinez De Lagos Menique Aitziber
- Martinez Gorrotxategi Agurtzane
- Mata Oyanguren Oihana
- Mentxakatorre Odrizola Jon
- Molinero Izagirre Jokin
- Mondragon Ibañez Eneritz
- Mongelos Garcia Arantza
- Muñoz Barañano Iratxe
- Olea Garramiola Lur
- Orbegoza Zurutuza Itziar
- Ormaetxea Jauregi Unai
- Ortega Sunsundegi Igor
- Otaduy Marauri Oihana
- Ozaeta Elorza Arantza
- Pagoaga Zaloña Itsaso
- Pascua Martin Cristina

- Pavon Arrizabalaga Amaia
- Perez Lizarralde Karmele
- Portilla Zaldibar Unai
- Quintas Quintas Marta
- Ranero Gonzalez Iñigo
- Rekalde Perea Irene
- Rodriguez Garitano Jone
- Romero Garmendia Irati
- Ruiz De Austri Arexolaleiba Marixe
- Ruiz De Azua Galdos Edurne
- Sagardia Iturria Irati
- Sagastui Aguayo Jone
- Salegi Arruti Eider
- San Millan Amezaga Aitor
- Sanchez Lasa Xabier
- Sanchez Moran Yera
- Sanchez Murueta Aritz
- Sanchez Rodriguez Eli
- Santa Cruz Elorza Sirats
- Sarasua Maritxalar Jon
- Sarobe Egiguren Aitziber
- Toledo Delgado Usoa
- Torrealday Gallarreta Amaia
- Torres Lete Maialen
- Udaondo Alberdi Ainara
- Ullibarriarana Garate Mikel
- Unamuno Egia Saioa
- Urain Muguruza Eider
- Uriarte Iñurrategi Ione
- Uriarte Iñurrategi Xabi
- Uriarte Zabala Leire
- Uribetxebarria Uribarren Nerea
- Urionaguena Fernandez Mikel
- Urizar Zugazagoitia Ane
- Urkia Basterra Iraia
- Urkia Guridi Iraia
- Urzelai Vicente Ainhoa
- Villada Rodriguez Arrate
- Zabala Ibarra Ane Miren
- Zabaleta Mendikute Garazi
- Zarrabeitia Salterain Endika
- Zuazubiskar Iñarra Ane
- Zuberogoitia Espilla Aitor
- Zuberogoitia Kaltzakorta Miren
- Zubia Zubizarreta Nerea
- Zubizarreta Pagaldai Ane
- Zufiaurre Astigarraga Mirene





**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**


Dorleta z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40
harrera.huhezi@mondragon.edu

Olagorta kalea 26 (Zorrotzaurre)
48014 BILBO
Bizkaia
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu



www.mondragon.edu/huhezi



ENTITATE LAGUNTZAILEA

